



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 18a

38. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroaren garapen ekonomikoari eta sozialari begira ekintzaitzak daukan garrantzia aitortzen da. Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prostituziora bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarean sar dadin Foru Komunitatea. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legearen aplikazioarekin zerikusia duten dekretuak gara ditzan. Mozioa erretiratzea (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri urgente eta zehatzekin jarduteko plan bat sor dezan soldata-arraila gutxitze aldera. Mozioa erretiratzea (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu ekitatibo eta garden batez bana ditzan publikitate instituzionaleko kontusaila edo kontusailak. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetzea (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu EBk eta Turkiak Errefuxiatuei buruzko Goi-bilera Berezian lortutako hasierako akordioa. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita proposamenak egin ditzan Europar Batasunaren eta Turkiaren arteko akordioak ukitutako pertsonen egoera konpontzen laguntzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari berriz ere eskatzen baitio Marokoko Erresumari exiji diezaion Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideak errespetatzeko. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Europako erakundeei eta Europar Batasuneko estatuetako gobernuari inplikazio handiagoa eskatzen baitie gerren ondorioz lekualdatutako pertsonentzako laguntzari dagokionez. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere babesaren ematen diela Voluntad Popular alderdiko buruzagi Leopoldo Lópezen nahiz Venezuelan arrazoi politikoengatik espetxeratutako gainontzeko presoek askatasuna ekarriko duten neurriari. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, itzarote-zerrendak murrizte aldera “peonada” deritzen arratsaldeko lanaldiak ezartzeari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (12. or.).
- Galdera, profesionalen eta gaixoen parte-hartzea hobetze aldera Osasun Departamentuak sortuko dituen foroari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (12. or.).
- Galdera, itzarote-zerrendak murrizteko xedez mediku espezialistak kontratatzeari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (13. or.).
- Galdera, itzarote-zerrendak murrizteko aurreikusitako egutegiari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Buztintxuriko Osasun Etxearen ordutegia luzatzeari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (14. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin zer zuzemen egin duen Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistren graduatuko ikasleek ingeleseko B2 edo/eta C1 maila kreditatzen duen titulua lor dezaten. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, frantseseko ikasleentzako truke-programari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, txikizkako saltoki txikientzako babes eta berrikuntza neurriari eta baliabideei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Arcelor SSCI enpresak Legasan libre dituen industria-lurzoruak erosteari eta kudeatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, dendetan plastikozko poltsa ez-biodegradagarriak libreki eta doan emateari eta hori kontrolatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Starlight Fundazioak sustatutako ekimenari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, “autoituntze-jardunaldiak” izenekoak egiteko aurreikusitako aurrekontuari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, “autoituntze-jardunaldiak” izenekoak zein kontusailen kargura egingen diren jakitekoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitalegunean aurreikusitako autoituntze-jardunaldien kopuruari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Reina Sofia Ospitalean aurreikusitako autoituntze-jardunaldien kopuruari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, García Orcoyen Ospitalean aurreikusitako autoituntze-jardunaldien kopuruari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak 2015ean publizitatera bideratutako diru-kopuruei buruzkoa. Miren Aranoa Astigarraga andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako *British* ikastetxe berrietako ikasleen hezkuntza-prozesuei jarraitutasuna emate aldera Hezkuntza Departamentuak hartutako neurriari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaeleak:

- Lehendakariaren 11/2016 Ebazpena, 2016ko martxoaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen baita lehendakariaren 2013ko abenduaren 30eko Ebazpena. Haren bidez arautu zen Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sortzeari buruzko Foru Legearen 12.1 artikulua aipatzen dituen sozietate-eragiketarako baimentzeko jarraitu beharreko prozedura (23. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2016ko martxoaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten eta 2016ko otsailaren 12ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148, 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin, Erregelamenduko 152.1

eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost** egun balioduneko **epe bat hasiko da, 2016ko apirilaren 14ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroaren garapen ekonomikoari eta sozialari begira ekintzailtzak daukan garrantzia aitortzen da.

CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroaren garapen ekonomikoari eta sozialari begira ekintzailtzak daukan garrantzia aitortzen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzera, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Cristina Altuna Ochotorena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Enpleguak nafarren kezka nagusienetako bat izaten jarraitzen du. Nafarroan % 13,5ekoa da langabezia-tasa, baina dramatiko da egoera gazteen artean; izan ere, Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuen arabera, gazteen artean langabezia-tasa % 46,5ekoa zen 2015eko laugarren hiruhilekoan.

Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak mendekotasun ekonomiko handia eragiten du nafar gazteen artean, Nafarroako Gaztediari buruzko 2015eko Diagnostikoaren datuek erakusten duten legez. Txosten horren arabera, elkarrizketatutako gazteen % 48,5 daude beste pertsona batzuen diru-sarreraren mende ekonomikoki.

Egoera horrek guztiak zaildu egiten du, halaber, gazteen emantzipazioa, zeina gero eta berantiarraigoa baita, bai eta proiektu pertsonalak abian jartzea ere. Hortaz, ez da harrizkoa horrek guztiak eragin negatiboa izatea ugalkortasunean. Ondorioz, gizartea gero eta zaharragoa da, eta horrek ongizate-estatuaren egonkortasuna mehatzatzen du.

Gero eta gazte gehiagok ikusten dute autoenplegua modu bat dela bere egoera ekonomiko zailari erantzuteko. Foru Parlamentuak, 12/2013 Foru Legearen bidez, ekintzailtza eta lan autonomia bultzatzeko konpromisoa hartu zuen, enplegua sortzeko aukera modura. Babes hori "mendeko autonomia" bezalako figurak agertzearen aurkako borrokarekin uztartu beharra dago.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

– Ekintzailtzak Nafarroaren garapen ekonomiko eta sozialerako daukan garrantzia aitortzea.

– Nafarroako Gobernua premiatzea Ekintzailetzarako eta Gazte Enplegurako 2016-2019 Estrategia taxutu dezan.

– "Mendeko autonomoen" gorakadaren aurka borrokatzeko plana.

Iruñean, 2016ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prostituziora bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarean sar dadin Foru Komunitatea.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita prostituziora bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarean sar dadin Foru Komunitatea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Batzordean eztabaidatzeko.

Prostituzioa abolitu beharreko esplotazio modu bat da, ezen ez arautu beharreko lanbide bat; izan ere, muturreko genero-indarkeria modu bat da: «baliokideak dira emakume prostituituek eta gizonek jasan behar dutena eta beste testuinguru batzuetan sexu-abusuaren eta bortxaketa jarraituaren definizioari legokiekeena. Diru-kopuru bat ordaintzeak «enplegu» bihur al lezake abusu hori, zeinari «sexu-lana» izena eman nahi baitzaio?

Prostituzioa arautzeak inplizituki legitimatzen ditu harreman patriarkalak: gizonen eta emakumeen arteko harreman asimetrikoen eredu bat onartzea bezala da, emakumeen mendekotasun eta azpiratze sistema bat ezartzea eta antolatzea, emakumeen berdintasunaren aldeko zenbait hamarkadako lana deuseztatzea.

Prostituzioa legitimatzean, emakumeak sexualki lotzeko eta haien gaineko kontrol patriarkalera euskarri bihurtzen da; ondorioz, eragin negatiboa ez da soilik prostituzioan dauden emakumeen

eta neskatoen gainekoa, ezpada emakume guztien gainekoa; izan ere, prostituzioak emakumeen definizio patriarkalak baieztatzen eta sendotzen ditu, haien zeregina sexualki gizonen zerbitzura egotea izanen bailitzateke.

Prostituzioa arautzen baldin badugu, eta merkatu-ekonomian sartzen, esaten ari garena da prostituzioa aukera onargarri bat dela emakumeentzat eta, hortaz, onargarria baldin bada, ez dela beharrezkoa prostituitzeko arazoak desagerraraztea, ezta emakumeak prostituzioan jardutea ahalbidetzen eta bideratzen duten baldintza sozialak ere. Prozesu honen bidez, prostituzioa «txiroentzako aukera» gisa normalizatzea indartzen da.

Indarkeria-mota hori emakumeentzako beste edozein lanbide bezalako bat bihurtzen baldin badugu, nola hezi ahalko dugu berdintasunerako, neskatoek beren etorkizuna prostituzioa izan daitekeela dakiten gizarte batean, Holandako auzo gorrian bezala beste emakume batzuek beren gorputzak erakusleihatuan erakusten dituztela ikusita, eta mutikoen baldin badakite emakumeak beren sexu-gozamenerako baliatzen dituztela horretarako behar adina diru edukiz gero?

Prostituzioa arautzen duen gizarte batean, mutikoen eta neskatoen balio zeharo berezietan gizarteratzen ari gara: mutikoen, hartara, gizon diren aldetik, emakumeen gorputza, arreta, denbora... erosi, baliatzeagatik ordaindu, ahal izanen dute. Neskatoek, berriz, emakume bezala gizonen zerbitzuan egon daitezkeela ikasiko dute. Behar bada ez pertsonalki edo zuzenean, baina bai emakumeek, emakume askok. Prostituzioa arautzen baldin bada, ezinezkoa izanen da gure hirietan berdintasunean hezteak.

Horregatik defendatzen dugu argiro eta gure egiten dugu mugimendu abolizionistaren jarrera handinahia, giza eskubideei eragiten dien arazo baten errora joatea bilatzen duena. Izan ere, eskubide horiek, funtsezkoak diren aldetik, ez daude ezbaian: pertsona orok du eskubidea abusatua ez izateko eta sexualki erabilia ez izateko, ez doan ez inolako ordainsari ekonomikoren truke. Hortaz, eskatzaileengan, bezeroengan, prostituitzaileengan jarri behar dugu arreta. Eskaririk gabe ez baitago eskaintzarik.

Murgilduta gauden borroka hau ez da soilik ekonomikoa, halaber baita ideologikoa eta balioena, beste subjektibotasun bat eta beste kontzientzia sozial bat eraikitzekoa. Berdintasunezko gizarte bat egiaz eraiki nahi baldin badugu, eskaria desagerraraztera bideratu behar ditugu neurriak, prostituitzailea (bezeroa) eta proxeneta salatuz, jazarriz eta zigortuz: Suediak zigortu egiten ditu emakumeak edo haurrak sexu-merkataritzarako erosten dituzten gizonak, sei hilabetera bitarteko espetxe-zigorarekin edo isunarekin, delitu hori “ordainpeko indarkeria” gisa tipifikatzen duelako. Ez du inolaz ere jotzen prostituitutako emakumeen aurka, ez du haiek zigortzea edo zehatzea bilatzen; izan ere, prostituzioa emakumeen, neskatoen eta mutikoen aurkako gizonezko indarkeriaren alderdi bat bezala hartzen da.

Prostituzioan dauden emakume eta gizonezkoen patua aldatzeko, beharrezkoa da sistema ekonomiko justu eta iraunkor bat planteatzea, bi sexuak berdintasunean kontuan hartuko dituen. Horien patua aldatzeko, mafien aurka egin behar da, gure herrian ezartzen laguntzen dien lege permisiborik eta gure hirietan adreiluan edo “Eurovegas” bezalakoetan oinarritutako eredu ekonomikorik onartu gabe. Horien patua aldatzeko, gizon horien mentalitatea aldatu behar da, ez soilik gogogabetuko dituzten isunen bidez, ezpada hezkuntzaren bidez, hedabideak behartuko dituen emakumearen irudia sexu-objektu batena balitz bezala eman ez dezaten eta gizonak behartuko dituen bizitzan emozionalki erantzunkidetasunez jokatzera. Horien patua aldatzeko, beharrezkoa da emakumeen eskubideak, bigarren mailako eskubideak izan ordez, benetan izatea giza eskubideen parte.

Diotenez, prostituzioa betidanik izan da. Gerrak, tortura, haurren esklabotza, milaka pertsona gosez hiltzea... horiek ere betidanik izan dira, baina horrek ez du frogatzen zilegitasunik edo baliotasunik dutenik. Prostituziorik gabeko mundu bat irudikatu behar dugu, era berean lortu baitugu irudikatzea esklabotza, apartheid, genero-indarkeria, infantizidio eta emakumeen genitalen ebaketarik gabeko mundu bat. Hori da bide bakarra, koherentziari eusteko gizartean eta hezkuntzan berdintasunari buruz erabili ohi ditugun diskurtsoen eta benetan egiten eta sustatzen ditugun jokabideen artean.

Hori dela eta, gure erkidegoa aktiboki inplikatu behar da, gaur inoiz baino gehiago, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borroka honetan, prostituzioaren abolizioaren aldeko apustua eginez, konpromiso horren lehen urratsa izaki prostituziora bideratutako emakumeen eta

haurren trafikorik gabeko hirien sarearekin bat egitea.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Foru Komunitateak bat egin dezan prostituziora bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarearekin.

2. Aldizkako kanpaina bat taxutu dezan, herritarrak sentsibilizatzeko eta konbentzitzeko prostituzioa genero-indarkeria eta emakumeen sexu-esplotazioa dela, eufemismoz «bezero» deitutakoa ikusaraziz, beti anonimotasunean eta sozialki justifikaturik dagoena, prostituitzaileak sozialki eta publikoki deslegitimatzea helburu, genero-indarkeria mota honen protagonista, arduradun eta konplize aktibo direnak.

3. Administrazio zentralarekin lankidetzan, Nafarroako Gobernuak eskaria desagerraraztera bideratuko du bere ekimena, prostituitzailea (bezeroa) eta proxeneta salatuz, jazarriz eta zigortuz, eta Gobernu zentralari exijituz lehenbailehen ezar dezan araudi bat, Suedian bezala sei hilabetera bitarteko espetxe-zigorarekin eta isunarekin zigortuko dituen emakumeak sexu-merkataritzarako erosten dituzten gizonak.

4. Suediako araudiaren ereduari jarraikiz, bere ekimena ez du inolaz ere bideratuko prostituitzen diren emakumeen aurka, eta ez du haiek zigortzea edo zehatzea bilatuko; aitzitik, funtsak ezarriko ditu bizibide hori utzi nahi duen edozein prostitutarentzako gizarte zerbitzu integraletarako, prostituzioa utzi nahi duten emakumeei laguntzeko.

5. Apustu egin dezan, halaber, zergatien prebentziorako esku-hartzearen alde, ezen ez ondorioen errepresioaren alde, Gobernu zentralari exijituz lan-merkatuaren prekaritatea eta lan-merkatuan bizi diren esplotazio-baldintzak desagerraraz daitezzen, horien eraginez prostituzioa baita, zenbaitetan, zorrak ordaintzeko edo familia mantentzeko modu bakarra. Sexuaren industrietatik jasotako zergetatik etekina atera ordez, Gobernuak bahitu egiten ditu “sexuaren industriaren” ondasunak, eta prostituzioan diharduten emakumeen etorkizunean inbertituko ditu, baliabide ekonomikoak eta alternatiba errealak emanez.

6. Ez Nafarroako Gobernuak ez Foru Komunitatearen esparruko ezin administrazio publikok ere ez dezan balia prostituzio-iragarkiak dituen inolako hedabiderik –horren euskarria zein ere den– publizitate instituzionala egiteko, eta hedabi-

de horiekiko lankidetzaz edo finantzaketa oro kenduko du.

7. Legea egiaz aplikatu dezan, emakumeen eta pertsonen trafikoa jazarriz, bai eta mundu guztiak ezagutzen dituen errepide-putetxe eta klubetan lasai asko diharduten proxenetak ere.

Iruñean, 2016ko martxoaren 10ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legearen aplikazioarekin zerikusia duten dekretuak gara ditzan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen zen Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinua-

ri buruzko 5/2010 Foru Legearen aplikazioarekin zerikusia zuten dekretuak gara ditzan, eta 2015eko abenduaren 28ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da neurri urgente eta zehatzekin jarduteko plan bat sor dezan soldata-arraila gutxitze aldera.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana San Martín Aniz andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen zen neurri urgente eta zehatzekin jarduteko plan bat sor

zezan soldata-arraila gutxitze aldera, eta 2016ko martxoaren 4ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da modu ekitatibo eta garden batez bana ditzan publizitate instituzionaleko kontusaila edo kontusailak.

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutaldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita modu ekitatibo

eta garden batez bana ditzan publizitate instituzionaleko kontusaila edo kontusailak. Mozioa 2016ko otsailaren 5eko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu EBk eta Turkiak Errefuxiatuei buruzko Goi-bilerara Berezian lortutako hasierako akordioa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du EBk eta Turkiak Errefuxiatuei buruzko Goi-bilerara Berezian lortutako hasierako akordioa, eta Europako agintariak premiatzen ditu akordioa birpentsa dezaten.

Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela nazioarteko zuzenbidea eta errefuxiatuentzako laguntza humanitarioa uztartuko dituzten konponbideetara iristea hurrengo Europar Kontseiluan.”

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita proposamenak egin ditzan Europar Batasunaren eta Turkiaren arteko akordioak ukitutako pertsonen egoera konpontzen laguntzeko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako adierazpen instituzional hau onetsi du, Espainiako Gobernuari helaraz dakion:

1. Proposamen zehatzak egin ditzan, ukitutako pertsonen egoera konpontzen –edo gutxienez ere, arintzen– laguntzeko.

2. Genevako Konbentzioko akordioak betetzea erreibindika dezan.

3. Giza eskubideak eta pertsonen duintasuna errespetatu daitezkeen.

4. Harrera eta laguntza humanitarioa ahalbidetze aldera beste erakunde batzuek abian jartzen dituzten neurri guztiak babes ditzan.”

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari berriz ere eskatzen baitio Marokoko Erresumari exiji diezaion Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideak errespetatzeko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak, Espainiak Mendebaldeko Saharako egoeran daukan erantzukizun historikoaz eta politikoaz jabetuta, Espainiako Gobernuari berriz ere eskatzen dio:

1. Marokoko Erresumari exiji diezaion Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideak zorrozki errespetatzeko eta sahararrek pairatzen dituzten eskubide-urraketak amaitzeko. Halaber premiatzen du aktiboki lan egin dezan Europar Batasunaren barruan, MINURSOk bere eginkizunen artean orobat edukitze aldera Mendebaldeko Saharan giza eskubideak betetzen direla zaintzea eta babestea.

2. Fronte Polisarioaren Espainiako Ordezkaritzari estatus diplomatikoa eman diezaion, sahararren ordezkaritza zilegi bakar gisa, Nazio Batuen Erakundeak aitortzen duen moduan. Behar diren ekimen politikoak bultzatu ditzan, konponbide justu eta behin betiko bat lortzera bideratuak, Saharako herriaren autodeterminazio eskubide zilegiaren defentsan, erreferendum libre eta erregular baten

bidez, bukatu gabe dagoen deskolonizazio prozesuaren azken urrats gisa.

3. Lehenetsi ditzan, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluko kidea den aldetik, Sahara Mendebaldeko Bake Plana betetzeari buruzko auziak, eta MINURSOren eskumenak sustatu ditzan, zona horretan giza eskubideak gainbegiratzeari dago-kionez. Eta Saharako herriarekiko lankidetzeta eta laguntza humanitarioa areagotu ditzan.

Legebiltzarkideen taldeartekook lan lehenetsi gisa ezartzen dugu lurralde okupatuetako sahararrei laguntzea. Hori dela eta, behaketa-misioak bidaltzen jarraituko dugu 2016an.

Adierazpen hau honako hauei igorriko zaie: Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ordezkaritari, Espainiako Gobernuari, Europar Batzordeari, Fronte Polisarioaren Espainiako Ordezkaritzari, Marokoko Gobernuari, Espainiako Kongresuari eta Senatuari eta autonomia erkidegoetako parlamentuei”

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Europako erakundeei eta Europar Batasuneko estatuetako gobernuei inplikazio handiagoa eskatzen baitie gerren ondorioz lekualdatutako pertsonentzako laguntzari dagokionez.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Europako erakundeei eta Europar Batasuneko estatuetako gobernuei inplikazio handiagoa eskatzen die gerra bereziki bortitz eta odoltsuen ondorioz lekualdatutako pertsonentzako laguntzari dagokionez.

2. Zehazki eskatzen du desblokea daitezen pertsona errefuxiatuen etorrera eta haiek Europa osoan egokiro banatzea ahalbidetuko duten prozedurak.

3. Espainiako Gobernuari exijitzen dio abian jar ditzan beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eta egokiak diren administrazio-prozedurak, ahalbidetze aldera autonomia erkidegoek parte hartzea pertsona horiek artatzeko Europar Batasunaren eta Estatuaren baliabide ekonomikoen banaketan, egoera honi modu integralean aurre egiteko neurri egokiak modu bateratuan aplikatzearren.

4. Berresten du prest dagoela hel litezkeen pertsona errefuxiatuen harreran eta gizarteratzean

laguntzeko, eta uste du ezinbestekoa dela ezartzea banaketa geografikoko irizpide objektibo, homogeen eta adostu batzuk, birkokatze aldera bai Europako lurraldera zuzenean heltzen diren pertsonak, bai ukitutako lurraldeetako eta herrialde mugakideetako errefuxiatu-eremuetako kokaguneetatik iristen direnak.

5. Immigrazioaren Konferentzia Sektorialaren deialdia urgentziaz egin dadin exijitzen du, autonomia erkidegoek auzi honi modu bateratuan hel diezaioten.

6. Diputatuen Kongresuko lehendakaria premiatzen du Legebiltzarrean proposa dezan azpibatzerde bat eratzea asilo- eta aterpe-politiken eredu berri bat eztabaidatzeko, aurrean dauzkagun erronka berriei aurre egiteko; horretarako, politika horien zehaztapena eta garapena helburu, autonomia erkidegoak bertan sartuko dira.

Izan ere, guztion helburua da pertsona jazarritako egiazko asilo- eta aterpe-toki bat eraikitzea, beste demokrazia sendo batzuetan bezala”

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere babesa ematen diela Voluntad Popular alderdiko buruzagi Leopoldo Lópezen nahiz Venezuelen arrazoi politikoengatik espetxeratutako gainontzeko presoek askatasuna ekarriko duten neurriei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere babesa ematen diola kasuko neurri guztiak hartzeari –Espainiako erakundeetatik, Europar Batasunaren esparruan, Espainiak ordezkari duen nazioarteko erakundeetatik eta Nicolás Maduroren

Gobernuaren beraren aitzinean ere bai–, Voluntad Popular alderdiko buruzagi Leopoldo Lópezen nahiz Venezuelen arrazoi politikoengatik espetxeratuta dauden gainontzeko presoek berehalako askapena ekarriko dutenak”

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, itxarote-zerrendak murrizte aldera “peonada” deritzen arratsaldeko lanaldiak ezartzeari buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, itxarote-zerrendak murrizte aldera “peonada” deritzen arratsaldeko lanaldiak ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

